

# HERRI BATEKO UMEEN ETA BERE FAMILIEN BEHARRAK NOLA ASETZEN DIRA?



Herria



Gatazka



Umeen partaidetza



Udalbatzarra

NATURA, GIZARTE ETA KULTURA  
INGURUNEAREN EZAGUERA

LH, 6. MAILA

*Elena López*

## LAN-ESKEMA

**Irakasgaia:** Natura, Gizarte eta Kultura ingurunearen ezaguera

**Gaia:** Herri bateko umeen eta bere familien beharrak nola asetzen dira?

**Maila:** Lehen Hezkuntzako 6. maila

**Saio kopurua:** 6-8 saio

### Proposamenaren testuingurua

Guztiok herri hala hiri batean bizi gara, tamaina, biztanle kopurua, paisaia... oso ezberdina izan arren, gure herrietan Udaletxe eta familien artean dauden harremanetan eskubide eta betebeharrak bi aldeetatik bete behar dira.

Gizarteak udal administrazio irekia eskatzen du, etengabe hobetzen aritu behar duena. kudeaketak hiritarren behar eta itxaropenak ase beharko dituena. Administrazio horrek ahalik eta bizkorren, hoberenen eta erarik eraginkorrenean eman beharko du zerbitzua eta, horretarako, antolatze metodo nahiz tresna administratibo eta teknologiko moderno eta aurreratuenak erabili beharko ditu.

Hiritarrek ( familiak, ikasleak,...) elkarrekin bizi behar dute eta hala hori egiteko nola guztion eskubide eta interesak zein gure hirian dauden pertsona guztienak babesteko, jokabide-arau zehatzak eta demokratikoki onetsitako legeak bete behar dira. Eskubideen erabilera oztopatu edo betebeharrak betetzen ez badira, gizarte guztian eragiten duten ondorioak sortzen dira.

Unitate honetan horixe landuko dugu: Zeintzuk dira bakoitzak bizi garen herrian ditugun ESKUBIDEAK? Gure beharrak asetzen al dira?. Zeintzu dira eskubide eta behar horiek?. Jakin badakigu Eskubideak eta betebeharrak loturik daudela, beraz zeintzu dira gure betebeharrak?. Eta nola egingo dugu ados ez gaudenean?. Liskar posibleen artean zeintzuk izan daitezke aurre egiteko bide positiboak?. Ba al dakigu erreklamazio bat egiten?. Eta komunitate batean arazoak daudenean hartu behar diren erabakiak?. Hiritar guztien ongizatea helburu izanik zein izan beharko litzateke guztion konpromezuak?...

Plana gauzatu doazen neurrian, ikasleak informazioa gordetzen eta antolatzen joango dira, bukaeran lanaren aurkezpen bat egiteko kideen ( zikloan edo maila baxuagoetan) edo gurasoen aurrean eta herriko Alkatearekin edo ordezkariekin elkarrizketa egiten prestatu behar dira. Honi aurre egiteko bakoitzak bizi den herriko ezagutza, zerbitzuak, antolaketa, oinarrizko eskubideen ulermena eta bakoitzari eskatzen zaion betebeharrak ulertzea, gatazkei aurre egiteko bide batzuk jorratzea beharrezkoa izango da.

### Landuko diren oinarrizko gaitasunak (jarduerak)

- Gizarterako eta herritartasunerako g.: 1,2,3,4,5,6,7
- Ikasten ikasteko g.: 1, 2, 3, 4, 5, 7,
- Hizkuntza komunikaziorako g.: 1, 2, 3, 5, 6,
- Matematika g.:3, 4
- Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko g.:3, 4, 6, 7,
- Norberaren autonomiarako eta ekimenerako g 1, 2, 3, 4, 5, 6, 7

### Helburu didaktikoak:

- Ikasle bakoitzak bere herriaren ezagutza handiagoa lortzen du, herritarrek dituzten beharrak asetzeko herriek eskeintzen dutena ezagutuz eta herritarron betebeharrak hausnartuz.
- Oinarrizko zerbitzu bakoitzaren ezaugarriak, funtzionamendua eta antolaketa herri mailan ezagutu eta aztertu egiten dira.
- Herriak dituen diru sarrerak eta gastuak identifikatu egiten dira.
- Herri batzuen arteko ezberdintasunak zerrendatu egiten dira.
- Udaletxearen funtzio nagusiak eta antolaketa identifikatu egiten dira.
- Udalerriko gobernuaren autoritate irudi ezberdinen funtzioak ezberdindu egiten dira.
- Eguneroko bizitzan udalerriko funtzionamendu demokratikoan herritarrek dituzten eskubideak eta betebeharrak aztertu eta hori kontuan harturik ezadostasunen aurrean bide ezberdinak jorratzen dira.
- Ikasleek bere eskoletako hobekuntzaz hitz egiteko eta erabakiak hartzeko, Udalbatzarra balitz bezala, eskolako Asanbladan parte hartzen dute.
- Gatazkak eta ebazpenen aurrean jarrera eraikitzailea erabiltzen du eta dialogoa eta negoziazioa ulertzeko eta kontsentsorako bideak erabiltzen ditu.
- Edozein arazoan aurrean bere ikuspegia aztertzez gain, besteen lekuan ipintzen da.
- Liskarrei aurre egiterakoan giza eskubideak defendatzen ditu eta giza trebetasunak erabiltzen badaki.

### Edukiak:

- Herritarrek herri mailan dituzten Eskubide eta Betebeharrak.
- Herriaren ezagutza: Fisikoki, Oinarrizko zerbitzuak, funtzionamendua eta antolaketa.
- Herriko diru sarrerak eta gastuak.
- Udaletxearen funtzioak eta antolaketa.
- Gobernu irudi ezberdinak: Alkatea, zinegotziak,....
- Erreklamazioak.
- Herrietan eman daitezkeen liskarrei aurre egiteko bideak.
- Herrien arteko desberdintasunak aberastasun-iturri moduan bizitzea.
- Herrien informazio-bilketa Interneten, elkarrizketen bidez, txostenetatik...
- Gatazkei aurre egiteko modu positiboak: dialogoa, negoziazioa, adiskidetzea, erreparazioa,....
- Eskolako edo gelako batzarretan parte hartzeko trebetasunak.
- Informea, Elkarrizketa, aurkezpena egiteko baliabideak.
- Elkarren sentimenduak balioestea besteen lekuetan jarriz.

- Eskubideak eta betebeharrak elkarrekin.

#### Jardueren sekuentzia:

- 1. saioa: Zer dakigu gai honi buruz?. Aurriritziak ateratzea, jakintza maila baloratzea eta irakasleak dituen helburuak identifikatzea.
- 2. saioa: Herritarren Eskubide eta betebeharrak.,
- 3. saioa: Herria ezagutzen dugu: oinarrizko zerbitzuak, funtzionamendua eta antolaketa.
- 4. saioa: Udalerriko diru sarrerak eta gastuak.
- 5. saioa: Udaletxearen gobernu irudiak, antolaketa, funtzionamendua.
- 6. saioa: Ez adostasun aurrean konpontzeko bideak: Erreklamazioa, parte hartzea....
- 7. saioa: Gatazkei aurre egiteko modu positiboak: dialogoa, negoziazioa,...
- 8. saioa: Zer ikasi dugu: informea, aurkezpena, elkarrizketa.

#### Ebaluazioa: Adierazleak eta jarduerak

- Herri baten zerbitzuetaz informazioa bildu eta era antolatuan gordetzeko gai da.
- Herritarren eskubideak eta betebeharrak identifikatu eta ulertzen ditu bere bizitzarekin erlazionatuz.
- Eskubideak unibertsalak direla identifikatzen ditu.
- Informazioak bide ezberdinak jorratuz bildu, antolatu eta konpartitzeko gai da.
- Eskubide eta betebeharrak biltzen duen idatzi bat egiteko gai da.
- Herri mailan dauden diru sarrerak eta gastuak ezagutzen ditu.
- Herritarren artean eman daitezkeen gatazkak, liskarrak, ez adostasunen aurrean bide positiboak erabiltzen ditu.
- Informazioa, zerbitzuak, autoritate irudiak ezagutu eta errespetatzeko jarrera agertzen du.
- Parte hartzen du aktiboki gelan planteatzen diren eztabaidatan (eta jardueretan).
- Talde-lana aurrera ateratzeko borondate baikor eta lagunkoia erakusten du.
- Modu egoki batean adierazten ditu, eskola kideen aurrean, gaiaren inguruan bizi izandako esperientziak.

**1.- JARDUERA: Zer dakigu gai honi buruz?. Aurriritziak ateratzea, jakintza maila baloratzea eta irakasleak dituen helburuak identifikatzea.**

Sekuentzia didaktiko honen bidez landu behar ditugun gaiari buruz zer pentsatzen duzue, zer dakizue eta zuen irakasleak sekuentzia hau lantzerakoan dituzten helburuak ulertzea eta bereganatzea izango da helburu:

1. Herri batean bizi diren biztanle guztiek (guk barne) ESKUBIDE eta BETEBEHAR berdinak dituzte, hemen azaltzen diren eskubide bakoitzak zertan datza eta biztanleentzat zer ondorioak dituzte azal ezazue:

HERRIETAN dauden eskubideak, beste batzuen artean, hauek dira:

ESKUBIDEA	ZERTAN DATZA	ZER ONDORIOAK DITU
Herrian dauden ordezkariak (Alkatea, zinegotziak) <b>hautatzeko eskubidea.</b>		
Udal administrazioaren <b>kudeaketa egokia, gardena</b> eta guzti horren informazioa izateko eskubidea.		
Hiritarrek <b>arreta adeitsu,</b> arduratsu eta begirunezkoa jasotzeko eskubidea dute.		
Hiritarrek <b>erreklamazioak egiteko</b> eskubidea dute.		
Hiritarrek Udalaren <b>oinarrizko zerbitzuak kalitatezkoak</b> ( ura, zabor bilketa, ...) jasotzeko eskubidea dute.		

2. **Eskubideak beti betebeharrekin batera etortzen dira** esaten da, beraz bizi garen herrian eta ditugun **eskubideak** pentsatzen jartzen garenean, zer **betebeharrak** ditugu pentsatzen jarri beharko ginateke.

Aipa itzazu herri batean bizi garenon **bi betebeharrak**:

.....  
 .....

Hiritarrek **arreta adeitsua, errespetuzkoa jasotzeko eskubidea badute**, zer betebeharra izango dute beraiek besteekiko?.

.....

Hiritarrek **kalitatezko zerbitzuak** ( ur hornidura, zabor bilketa,...) jasotzeko **eskubidea** badute, zer betebeharra izango dute?.

.....

3. Ondoko kontzeptu hauen inguruan duzun ezagutza maila balora ezazu:

1: Oso gutxi 2: Zerbait 3: Nahikoa dakit 4: Beste bati adierazteko kapaza naiz

Sekuentzia honetan landuko diren kontzeptu hauei buruz duzun ezagutza maila :

<b>KONZEPTUA</b>	<b>EZAGUTZA MAILA</b> Lanean hasi baino lehen	<b>EZAGUTZA MAILA</b> Sekuentzia bukatzerakoan
Herriak eskaintzen digun ur zerbitzuari buruz		
Herriak egiten duen zabor bilketa		
Herriak duen argiteri zerbitzua		
Herriko giza zerbitzuak		
Herriko kultura aukerak		
Alkatearen funtzioak		
Zinegotzien funtzioak		
Erreklamazio bat egitea		
Herrian eman daitezkeen gai ezberdinetan partaidetza		
Herriko diru sarrerak nondik		
Zertan gastatzen den dirua		

**2. JARDUERA: Herritarren Eskubide eta Betebeharrak**

1.- Demagun lurralde berri bat aurkitu dela, gizakiak bizitzeko baldintza guztiak dituena. Bertan ez da orain arte inor bizi izan, eta, beraz, ez du ez legerik, ez historiarik.

Zuek zarete lehenengo biztanleak, guztion artean herri bat osatu behar duzue, pentsatu izen batean eta herri horretan eroso eta gustura bizitzeko eskatzen dituzuen Eskubideak ( 10??) pentsatu beharko dituzue, eta aldamenean Eskubide horien berma izateko zer betebeharrak inplikatzten dituzte idatzi beharko duzue.

*Adibidez: Hiritarrek arreta adeitsu, arduratsu eta begirunezkoa jasotzeko eskubidea dute. Beraz, hiritar bakoitzak besteekiko arreta adeitsu eta begirunezkoa azalduko dute ( Betebeharra).*

Taldeetan banatu ( 4ko taldeak) eta \_\_\_\_\_herrian bizitzeko proposatzen dituzuen 10 eskubide oinarrizkoak IDATZ itzazue, ondoren gela osoan kontsentsatu oinarrizko eskubideak eta dagokien betebeharrak.

ESKUBIDEAK	BETEBEHARRAK
<i>1.-Hiritarrek arreta adeitsu, arduratsu eta begirunezkoa jasotzeko eskubidea dute.</i>	<i>Beraz, hiritar bakoitzak besteekiko arreta adeitsu eta begirunezkoa azalduko dute</i>

2.- Zuen herriko Alkate edo zinegotzi batekin harremanak izatea egokia litzateke: Entrebista bat egitea, mahai-inguru bat prestatzea, Udaletxeko bisita bat egitea....Zuek prestatu dituzuen Hiritarren Eskubideak azaltzea eta kontrastatzea litzateke helburu eta beraiengandik jasotako ideiak entzutea eta zuen txostena osatzea.

3.- Zer ikasi dut? Idazlan bat gai honi buruz egitea proposatzen dizuegu: komikia, ipuina, iragarkia....izan daiteke. Taldean hobekuntzak sartzea eta ebaluatzea

proposatzen dugu. Bukaeran gelako erakusketa bat egitea edo liburu batean idatzi guztiak jasotzea gelan erabaki beharko da.

Nire koadernoan idatziko dut:

- Eskubideei buruz ikasi dut: .....

- Betebeharrei buruz pentsatzen dut:.....

- Zailtasunak hauek dira:.....

- Elkarbizitza modu positiboan joan dadin zaindu behar da:.....

.....

.....

.

-Nire herrian gustatuko litzaidake.....



**3. JARDUERA . Herria ezagutzen dugu : Oinarrizko zerbitzuak , funtzionamendua eta antolaketa**

**HERRIAN IBILBIDEA**

1. Herriko planoak hartuko dituzte GOOGLE tik jaitziko dituzte eta ondo aztertuko dituzte.
2. Herriko ibilbidea aukeratu dugu: **eskolatik udaletxera**.
3. Herriko planoan guk egingo dugun ibilbidea marraztuko dituzte arkatzez, behar bezala marraztu dudala egiaztatu ondoren , ibilbidea errotulagailuz pasatu dugu .
4. Ibilbideko kaleak ordenatuta idatziko dituzte.

**ADIBIDEZ: ABALIS HERRIKO PLANOA**



**IBILBIDEKO KALEAK:**

▪ Mariaratz kalea	K3K4
▪ Arantzazu kalea	J5K4
▪ Zazpiturrieta kalea	J5
▪ Esteban Lasa	I5
▪ Martina Maiz	I5
▪ Andre Mari	H4H6
▪ Kale Nagusia	H6I6
▪ Erauskin Plaza	H6
▪ Foru Kalea	D4G5
▪ Garmendia Otaola	F5
▪ Barrendain Plaza	F6
▪ Juan Iturralde	H6
▪ Zaldizurreta	I6
▪ Bideluze Plaza	I6
▪ Jose Miguel Iturrioz	

**INTERESDUN ERAIKIN ETA TOKIAK**

5. Gure herriko ibilbidean agertzen diren eraikin interesgarrienak bilatuko ditugu ( zenbakiak dauzkatenak )
6. Taula batean bilduko ditugu eraikin interesgarrien datuak : Hezkuntza, Sanitate Ongiziatea, Kirola , Kultura , Zerbitzu Publikoak , Ondare artistikoa ...

**TAULA OSATU:**

		<b>HEZKUNTZA</b>
Planoko KOOR	Zkia	IZENA
K4	27	.....Ikastetxea
H15	28	.....Ikastetxea
H5	29	.....Ikastetxea
G5	30	..... Ikastetxea
BC	31	Institutoa
C5	24	Hurtzaindegia
		<b>SANITATE – GIZARTE ONGIIZATEA</b>
H5	20	Agureen Egoitza
I6	21	Anbulatorioa
H5	22	Gurutze Gorria
		<b>KIROLA</b>
K4	15	Pilotalekua
B5	16	Kiroldegia
C5	19	Football zelaia
C5	18	Igerilekuak
		<b>KULTURA</b>
I6	11	Kultur Etxea
K3	12	Ezkiaga Auzo Etxea

I6	13	Zinema
		<b>ZERBITZU PUBLIKOAK</b>
I6	1	Udaletxea
I7	26	Ertzaintza
J6	23	INEM
G5	25	Postaetxea
J6	14	Urbietza ( tailerrak )
		<b>ONDARE ARTISTIKOA</b>
H5	2	Andra Mari Parrokia
B4	3	Loinazko ermita
C3	4	San Martin Basilika
D5	6	Igartzako errota
D5	7	Dolarea
D5	8	Igartzako Jauregia
D5	9	Gurutzetza
H6	5	San Martin Estatua

7. Eraikinetan pegatinak jarriko ditut , dagokion zenbakia pegatinaren gainean idazten

GALDEKETA

8. Ibilbidea egingo dugun guztion artean , leku edo erakunde bat hautatuko dugu bisitaldia egiteko ..
9. Bertara joateko baimena UDALETXEAN eskatuko dugu .
10. Baimena eskatzeko, Idatzi eredu jarraituz zurea egin behar duzu.

### HERRIKO ALKATEARI HITZORDUA ESKATZEKO ESKUTITZ EREDUA

Eredu hau jarraituz bete ezazue hitz ordua eskatzeko orria :

#### EREDUA

##### ESKATZAILEAREN DATUAK

Izen – abizenak : Miren Lekuona

Helbidea: Bista alai 13 , 5.C

Herria: Abalis

NAzk: 15958754-C

Tel:943 168789

##### AZALTZEN DUT :

##### Jaun agurgarria:

(Hitz orduaren arrazoiak azalduko ditut ) Zurekin elkarhizketatzea gustatuko litzaidake nire auzoan falta diren zaborontziei buruz hitzegiteko

(Horregatik guztiagatik) zaborontzirik ez daudenez , kaleak txerri eginda daude egunero eta gainera gogora ezazu bertan txutxe denda bat ere badagoela eta horrek hona idakin asko sortzen duela .

**ESKATZEN DUT :**

( Nire eskakizunaren erantzunaren zain naukazuela) **Hitz ordu hori ahal duzun azkarren eskeitzea eskertuko nizuke bihotz bihotzez ea denon artean arazo honi irtenbide egokia ematen diogun .**

(Eskatu dudana onartuko duzuelakoan , agur )

**Nire eskaera hau kontutan hartuko duzulakoan zure erantzunaren zain har itzazu nire agurrik beroenak .**

**Izp: Miren Lekuona**

**Santa Marinan , 2009ko uztailaren 8an**

**ESKABIDEA**

**ESKATZAILEAREN DATUAK**

**Izen – abizenak:**

**Helbidea: Herria:**

**NAzk: Tel:**

**AZALTZEN DUT :**

**Izp:**

**Hitz orduaren arrazoiak azalduko ditut .....**

**Horregatik guztiagatik**

**ESKATZEN DUT :**

**Nire eskakizunaren erantzunaren zain naukazuela.....**

**Eskatu dudana onartuko duzuelakoan , agur**

**Santa Marinan , 2009ko uztailaren 8an**

11. Zer jakin nahi dugun pentsatu ondoren , galderak idatziko ditugu.
12. Guztion artean galderak aztertu eta interesgarrienak aukeratuko ditugu
13. Ordenaturiko galdeketa prestatuko dugu. Adibidez talde batek Abalis herriko Udaletxea aukeratu ondoren, jakin nahi zutena galdeketa honetan ordenatuta dute:

**GALDEKETA**

**NON: Udaletxean**

**NORI: Alkateari**

**ZER : Informazioa**

1. galdera : Zenbat etorkin etorri dira urte honetan ?
2. galdera :Beasainera etorri diren etorkinak normalean zein lurraldetik etortzen

dira?

3. galdera: Zenbat biztanle daude Babarisen ?
4. Noiz eraiki zuten udaletxea ?
5. Zenbat etxe daude Babarisen ?
6. Zergatik bota zuten hospitala?
7. Zenbat eskola daude Babarisen?
8. Zenbat etxe saldu dira urte honetan babarisen ?
9. Zein da zuk egiten duzun lana ?
10. Nortzuk laguntzen dizute lan horretan ?
11. Nola dago antolatuta Babariseko Udaletxea ?
12. Zenbat Batzordez osatua dago Bababaris udaletxea ?
13. Zer egiten du HAZIENDA ETA ONDASUN BATZORDEAK?
14. Eta GOBERNU BATZORDEAK ?
15. Eta HIRIGINTZA BATZORDEAK ?
16. Eta INGURUGIRO BATZORDEAK?
17. Eta KULTUR ETA HEZKUNTZA BATORDEAK ?
18. Eta GAZTERI ETA KIROL BATZORDEAK ?
19. Eta EUSKERA BATZORDEAK ?
20. Eta ZERBITZU ETA SUSTAPEN BATZORDEA?
21. Eta SANITATE ETA ONGIZATE BATZORDEA?
22. EMAKUMEZKOEN ARLOA
23. Ba ote dago beste Batzorde berezirik ?

14.- Bisita honetan ikusten eta ikasten duzuen guztia idatzi batean jaso beharko duzue, ondoren eskolako aldizkarian azal dadin. Horretarako bisita egiten duzuen argazki batzuk ateratzea komeni zaizue, egokienak aukera ahal izateko. ARGAZKI KAMARA ERAMAN EZAZUE.

ADIBIDEZ, Udaletxera joan direnak argazki hau atera dute:

## ALKATEARI GALDEKETA



**ZER IKASI DUT:** Bisitan ikasitakoa hemen idatz ezazue.

.....

.....

.....

.....

.....

**4. JARDUERA: Udalerriko diru sarrerak eta gastuak:**

1.- Abalis herriak 9. 897 biztanle ditu. Bailara batean kokatzen da, mendiz inguratutik, bertatik trenbidea eta Autobide bat igaro delarik.

Abalis herriak zerbitzu ezberdinak ditu, bertan bizi diren biztanleen oinarrizko eskubideak asetzeko helburuarekin. Batzuen ustez diru gehiegi gastatzen da, beste batzuek gehiago beharko zela esaten dute. Zein da gure iritzia? Iritzia izan baino lehen, hainbat datu beharko genituen eta horretarako galdera hauen erantzunak jakin beharko genuke:

ABALIS herria: Zenbat diru behar du halako herri batek urtero?. Nondik lortzen du diru hori?. Zenbat gastatzen da argian, kaleak garbitzen, aste bukaeratan egiten diren ganberradak konpontzen, jaietan, eskolatan....Eta bertan bizi direnak zenbat ordaintzen dute, eta zein kontzeptuetan?.

ABALIS herriko urteko aurrekontua beheko taula honetan azaltzen da, dena den Abaliseko aurrekontu osoa 1. Eranskinean topa dezakezue Excel fitxero batean, azter itzazue datu horiek eta hemen egiten diren galderen erantzunak bilatzen saia zaitezte.

## ABALIS HERRIKO AURREKONTUA

KODE ETA ZERBITZUA	AURREKONTUA 2009
2009KO AURREKONTUA	800.160
010.00 ZORRA PUBLIKOA	544.990
121.00 ADMINISTRAZIO OROKORRA	556.705
222.11 UDALZAINGOA	180.055
313.30 DROGOMENPEKOTASUNAREN PREBENT.	804.010
313.99 ONGIZATE ZERBITZUA	19.325
413.30 WC PUBLIKOAK	128.715
422.11 IKASTOLA	216.380
422.12 ESKOLA PUBLIKOA	243.190
433.00 ARGITERIA	191.165
434.11 PARKEAK ETA JARDINAK	365.310
441.10 UR HORNIKETA	409.105
441.20 SANEAMENDU	369.250
442.10 ZABOR BILKETA	543.250
442.20 KALE GARBIKETAK	445.540
451.10 KULTURA	145.100
454.11 JAIK	79.245
469.10 GAZTEDIA	183.130
511.00 KALE PUBLIKOAK	382.610
611.00 FINANTZA ADMINISTRAZIOA	133.220
=	
<b>GUZTIRA</b>	<b>6.740.455</b>

### GALDERAK:

- Abalis herriak zenbat diru behar du urte batean?.....
- Herriko Aurrekontu batetaz hitz egiterakoan konzeptu hauek azaltzen dira: Diru sarrerak + zergak + .....Hitz hauek zer esan nahi duten ulertzen al dituzu?. Bilatu, galdetu....
- Nondik lortzen da beharrezkoa den dirua? Diru sarrerak.....
- Biztanleek ordaintzen dituzten konzeptu batzuk identifika itzazu:.....
- Gastu batzuk identifika itzazue eta zuen herrian konzeptu horretan gastatzen dena azaldu:
  - Argiterian:
  - Kaleak garbitzen:
  - Eskoletan:
  - Jaietan:
  - Kultur etxean:
  - Liburutegian:
  - .....
  - .....



**Taldeko lana** :. Talde bakoitzak 10 galdera prestatuko ditu eta bere erantzunak ondo betetzen saiatuko da. Aldameneko taldearekin elkar trukatu eta besteek egin duten lana zuzendu ezazue: zer dago ondo eta zer hobetu daiteke.

2.- Zuen herriko datuak ezagutu itzazue. Behean duzuen taula hau betetzen saia zaitezte. Ondoren talde bakoitzak bere ondorioak atera beharko ditu eta gelan komentatu. Zerbait proposatzea bururatzen bazaizue Alkateari bidaltzea egokia litzateke.

### **NIRE HERRIKO AURREKONTUAN:**

#### **2009KO AURREKONTUA**

**010.00 ZORRA PUBLIKOA**

**121.00 ADMINISTRAZIO OROKORRA**

**222.11 UDALTZAINGOA**

**313.30 DROGOMENPEKOTASUNAREN PREBENT.**

**313.99 ONGIZATE ZERBITZUA**

**413.30 WC PUBLIKOAK**

**422.11 IKASTOLA**

**422.12 ESKOLA PUBLIKOA**

**433.00 ARGITERIA**

**434.11 PARKEAK ETA JARDINAK**

**441.10 UR HORNIKETA**

**441.20 SANEAMENDU**

**442.10 ZABOR BILKETA**

**442.20 KALE GARBIKETAK**

**451.10 KULTURA**

**454.11 JAIK**

**469.10 GAZTEDIA**

**511.00 KALE PUBLIKOAK**

**611.00 FINANTZA ADMINISTRAZIOA**

**622.30 FERI BEREZIAK**

**GUZTIRA .....**

6. jarduera : Ez adostasunen aurrean konpontzeko bideak : Erreklamazioa , parte hartzea .....

Abalis herri honetako auzo bateko bizilagunak ez daude ados orain errotonda berri bat egin denean eta kotxeen norabidea aldatu denetik beraien etxeetako portaletara ezin da nondik kotxez iritsi baliza fijo batzuk jarri dizkietelako gelditzen zen aukera bakarrean .

Horregatik zerbitzu zinegotziarekin elkartu nahi dira eta horretarako hauek izango lirateke jarraitu behar dituzten pausoak :

- . Bizilagunen asanblada bat egin
- . Erreklamazioa idatziz egin
- . Hitz ordua eskatu zerbitzuko zinegotzi arduradunarekin
- . Joan behar dutenak bilera prestatu .

Zuek orain lagundu behar diezue pauso guzti hauek jarraitzen lan honetan , baina horretarako lau talde egingo ditugu gelan eta talde bakoitza lan batetaz arduratuko da eta gero elkar jartzea egingo dugu .

**Puzzle lan kooperatibo eredia erabiliko dugu .**

Talde guztietan 1 zenbakia dutenak , ASANBLADA landuko dute.

Talde guztietan 2 zenbakia dutenak ERREKLAMAZIO IDATZIA

Talde guztietan 3 zenbakia dutenak HITZ ORDUA eskatuko dute

Talde guztietan 4 zenbakia dutenak BILERA PRESTATUKO DUTE

Gero berriro taldeak nahastuko dira eta guztietan 1, 2 , 3, eta 4 zenbakiak dituenen artean taldea osatuko da

## ASANBLADA

### GELAKO ASANBLADA

1. Ikasle guztiekin zirkulo bat osatu eta ordena eskatu asanblada hasteko
2. Asanbladaren helburuak zehaztu eta zeregina argitu.
3. Arauak jarri ondo entzuteko eta txandaka hitz egiteko
4. Asanbladaren gaia
5. Bakarkako erreflexioa , ikasleei minutu pare bat eman bakarka pentsatzeko
6. Bikoteak osatu elkar hizketa bideratu ahal izateko
7. Bikoteka debateak sortu
8. Talde guztiarekin debatea sortu
9. Asanblada itxiera, modu desberdinak daude :
  - Errepasatu , adostasunen batekin bukatzen bada
  - Azkeneko erronda , argibide motzak .
  - Interesgarriak diren gaien inguruko taldeko hausnarketa
  - Zer ikasi dugu gaurko elkar hizketa guztietatik
  - Galderak , gaurko gaiari buruzko galderarik ba al duzu?
  - Esaldiak osatu , ikasleak gonbidatu mota honetako esaldiak osatzera , orain asanblada bukatzeaz dagoela zera uste dut , pentsatzen dut , sentitzen dut.....
  - Etorkizunerako gaiak , hurrengo asanbladarako gaiak prestatu.
  - Ebaluaketa Zer gustatu zaizu gaurko asanbladaz . zertan hobeto dezakegu .. zer egin genezake desberdin hurrengoan ....
10. Akta jaso , idatziz jaso punturik garrantzitsuenak , ikasleak inplikatu lan honetan



## HERRIKO ALKATEARI HITZORDUA ESKATZEKO ESKUTITZ EREDUA

### ESKABIDEA

Izen – abizenak:

Helbidea:                      Herria:

NAzk:                              Tel:

ESKATZEN DUT :

Nire eskakizunaren erantzunaren zain naukazuela.....

Eskatu dudana onartuko duzuelakoan , agur

Santa Marinan , 2009ko uztailaren 8an

Izp:

AZALTZEN DUT :

Hitz orduaren arrazoiak azalduko ditut .....

## ENTZUTE AKTIBOAREN TEKNIKA

TEKNIKA	HELBURUA	PROZEDURA
<b>Animatu</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Interesa erakutsi</li> <li>• Besteak hitz egin dezan erraztu</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ez erakutsi adostasuna edo desadostasunik</li> <li>• Hitz neutralak erabili</li> </ul>
<b>Argitu</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Argitu esan duena</li> <li>• Informazio gehiago lortu</li> <li>• Beste ikuspuntu batzuk ikusarazten lagundu</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Galdera irekiak egin</li> <li>• Ulertu ez duzun zerbait argitzeko eskatu</li> </ul>
<b>Parafraseatu</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ulertzen ari zarela erakutsi</li> <li>• Utzi hiztunari hausnartzen eta ideiak antolatzen</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Oinarrizko ideia eta gertaerak errepikatu</li> </ul>
<b>Islatu</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Erakutsi ulertzen duzula zer sentitzen ari den</li> <li>• Lagundu beste pertsonari bere sentimenduak hobeto ulertzen</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Islatu hiztunaren sentimenduak</li> </ul>
<b>Laburbildu</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Errepasatu aurrerapenak</li> <li>• Elkarrekin jarri/antolatu ideia eta sentimendurik nagusienak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Laburbildu gertaera , ideia eta sentimendu nagusiak</li> </ul>

**7. JARDUERA Gatazkei aurre egiteko modu positiboak : Dialogoa ,  
negoiazioa**

**NI MEZU BAT DISEINATZEA**

<b>HELBURUA:</b> Ni – Mezu argi bat eraikitzea
<b>BETEKIZUNA:</b> “Ni – Mezu argi bat eraikitzea”
<b>IRAUPENA:</b> 20 minutu
<b>MATERIALAK:</b> Ni – Mezuaren formula duen lan orria. Taldea bakoitzarentzat “Ni – Mezu argi bat eraikitzea” orriaren kopia bat.
<p><b>PROZEDURA:</b></p> <p>1) Ikasleei Ni-Mezu baten formula irakatsi lan orriko eredua jarraituz.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• . .....sentitzen naiz ( emozioa agertu)</li> <li>• Zuk .....nean ( jarrera zehatza azaldu) • .....lako( zure bizitzan duen eragina agertu)</li> <li>• Eta nahi dut ( azal ezazu zer nahi edo behar duzun egoerak hobera egin dezan )</li> </ul> <p>2) Honako ideia berrikusi:</p> <p>“ Ni-Mezuak igorlea ( hitz egiten duena ) du ardatz ,eta ez hartzailea ( entzuten duena) . Zure emozioak eta premiak agertuko ditu entzuleari errua leporatu beharrean”</p> <p>3)Taldeari Ni-Mezuak erabiliz erantzun ahal izango duten zenbait egoera proposatu . Ikasleei eskatu egoera bakoitzerako Ni-Mezu bat pentsatzeko . Ni-Mezuaren formula erabili dezaten animatu .</p> <p><b>ADIBIDEZ:</b></p> <p>Jolastokian , Iñigoren ondoan pastasen zarenean , berak ahopeka iraindu egiten dizu .</p> <p>.....sentitzen naiz</p> <p>Zuk.....nean</p> <p>.....lako</p> <p>Eta nahi dut.....</p>

## LAN ORRIA

### NI MEZU BAT DISEINATU EZAZU

***Bizikleta berria lagunari utzi diozu . Itzuli dizunean gurpil bat hustuta dauka . Zu haserretu zara, eta ez dakizu nola esango diozun. Alde batetik zure lagun mina da eta ez duzu berarekin haserretu nahi, baina bestetik gaizki iruditzen zaizu egin duena. Gutxienik zerbait esan behar zizun, edo konpondu.....***

.....  
.....sentitzen naiz.

Zuk .....  
.....-nean

.....  
.....-lako

Eta nahi dut .....  
.....

Iturriko ilaran itxaroten ari zara . Bat batean , beste bat etorri da , bultzada egin dizu eta lekua kendu dizu .

.....  
.....sentitzen naiz.

Zuk .....  
.....-nean

.....  
.....-lako

Eta nahi dut .....  
.....

Eta orain asmatu ezazu zuk **egoera : Adierazi.....**

Imajina ezazu halako egoera batean zaudela eta NI- Mezu bat prestatu behar duzula egoera horri modu positiboan aurre egiteko:

NI – MEZUA

Orain taldeetan landu itzazue NI mezu desberdinak formulatzea. Taldean azaldu diren egoera ezberdinen artean bat aukeratu eta egoera horri aurre egiteko asmoz, Ni- Mezuak prestatu.

NI- Mezuaren eskema



# AUTOKONTROLA ORRIA OSATU BEHEKO TAULAKO HUTSUNEAK

Aurreko ariketetan hainbat edukiak ikasi dituzu, ea orain bakoitzak plano erabiliz, azaltzen diren hutsune guztiak arretaz eta patxadaz betetzen dituzue.

## HERRIA

### ERAIKIN INTERESDUNAK

KOOR	ZKIA	IZENA	ERAIKIN MOTA	KALEA
K4				
	2			
HI5			HEZKUNTZA	
G5				Kale Nagusia
	28			
		Udaletxea		
	25		Zerbitzu Publikoa	
		Dolarea		
J6			INEM	
	8			
C3			ONDARE ARTISTIKOA	
	2			Martina Maiz
G5	25			

- Taula bete eta gero taldean bildu eta bakoitzak egindakoa aztertu:
  - Ondo egin dudana:
  - Izan ditudan zailtasunak:
  - Sortu zaizkidan zalantzak:
  - Hobetzeko dudana:
- Aurreko Jardueran zer ikasi dugu hemen idatziko dugu:
  - .....

3.- Zer ikasi dut? Idazlan bat gai honi buruz egitea proposatzen dizuegu: komikia, ipuina, narrazioa, idatzia, iragarkia...izan daiteke. Taldean hobekuntzak sartzea eta ebaluatzea proposatzen dugu. Sekuentzia bukaeran gelako erakusketa bat egitea edo liburu batean idatzi guztiak jasotzea erabaki beharko zen.

## LAN ORRIA

### NI MEZU BAT DISEINATU EZAZU

***Bizikleta berria lagunari utzi diozu . Itzuli dizunean gurpil bat hustuta dauka . Zu haserretu zara, eta ez dakizu nola esango diozun. Alde batetik zure lagun mia da eta ez duzu berarekin haserretu nahi, baina bestetik gaizki iruditzen zaizu egin duena. Gutxienik zerbait esan behar zizun, edo konpondu.....***

.....  
.....sentitzen naiz.

Zuk .....  
.....-nean

.....  
.....-lako

Eta nahi dut .....  
.....

Iturriko ilaran itxaroten ari zara . Bat batean , beste bat etorri da , bultzada egin dizu eta lekua kendu dizu .


.....  
.....sentitzen naiz.

Zuk .....  
.....-nean

.....  
.....-lako

Eta nahi dut .....  
.....

LAN OSAGARRIAK



Bideo bilduma honetako zenbait filma laburrak ikusi daitezke eta gero eztabaidatu bertan ikusitakoa talde handian , prestatu daiteke aurretik galdeketa bat edo eta galdera zuzenak bideratu taldeari beraien iritsiak jaso eta eztabaida sortu.

Erderaz izan arren bailagarriak gerta daitezke eta badute urte batzuk ere .

**DILEMA MORALA**

**4.EGOERA (6.MAILA)**

**LOTSAREN LOTSEZ:**

Txango bat egitera joan ginen eta rafting egin behar genuen. Salbamendu txalekoa jantzi, kaskoa ipini eta txalupan eseri ginen. Begiraleak norbaitek igeri egiten ez zekien galdetu, eta inork ez zuen ezer erantzun. Begiraleak, beraz, denak igerian zekitela suposatu zuen.

Txalupa bakoitzeko begirale bana eta bost ikasle zihozen. Ibonen txalupan dauden ikasle guztiak mutilak eta harroputz hutsak dira eta bat-batean, begiraleak txantxa txiki bat egiteko, txalupa irauli zuen. Orduan denak, uretara erori ziren.

Denak barrez hasi ziren, baina Ibonek gorriak ikusi zituen. Ez baitzekien igeri egiten. Ondorioz, begiralea ere oso larrituta egon zen.

Ibilaldia bukatzean, Ibon oso lotsatuta iritsi zen, ikasle, begirale eta bere burua oso izututa ikusi zituelako.



**PROPOSATUTAKO EKINTZAK**

**Artículo I. Arazoaren hausnarketa**

A) Zein da arazoa? Nork dauka arazoa?

B) Ikuspuntu desberdinetatik istorioa kontatzen. (begiralearen, irakaslearen, Ibonen eta ikaskideen ikuspuntua).

**ESKOLAKO ALDIZKARIA**



## ALDIZKARI LAN METODOA

– Eguneko lana prestatzeko bileran parte hartuko dugu.

Eguneko lana planifikatuko dugu.

Bakoitzak ekarritako albisteak irakurriko ditugu, albiste orria osatzeko egokienak aukeratuz. Atalaren bat ez badugu INTERNET-en begiratuko dugu.

Favoritos                      Murutxiki albisteak

Departamentuetatik jasotako lanetatik sail bakoitzaren edukia aukeratuko dugu.

Egingo dugun lana banatuko dugu.

2.– Programa informatikoaren erabilera ezagutu ondoren, berataz baliatuz binaka lanean hasiko gara.

Ezkerrekoan / Azala—Gure eskola, elkarrizketa edo inkesta – Albisteak

Eskuinekoan / Lumaren kilima—Astearteko edo ostiraleko agenda—Denborapasak.

Murutxiki-ko sail bakoitza bukatu ondoren, egindako lana irakaslearekin kontratatuko dugu eta inprimatuko dugu.

Gure lanaz arduratuko gara, lan giroa zainduz eta baita ere denboraren epea ere.

3.– Eguna bukatzean:

Murutxikia fotokopiatu eta zabalduko dugu.

Lanaren balorazioa egingo dugu.

Orrialdez orrialde Publisher-eko lana PDF bihurtuko dugu, gero PDF dokumentu oso bat eginez eta Murumendiko WEB-era igoz.  
[murumendi.ikastetxea.net/login](http://murumendi.ikastetxea.net/login)

4.- Programa itxiko dugu eta ordenagailua itzaldtu.

**SCANERRAREN ERABILPENA**

- 1.- Pantailan HP sakatu bi aldiz.
- 2.- “INICIAR UNA EXPLORACIÓN NUEVA” ( klic)
  - “calentando lámpara”
  - argazkia aterako da
  - aukeratu nahi dugun zatia (klic)
- 3.- Edición. Copiar.
- 3.- Guardar como «mis imagenes»-etan
- 4.- Publisherrera joan.
- 5.- Edición . Pegar.

**ZER IDAZTEN DE PRENTSAN**

ZER IDAZTEN DA PRENTSAN		
1. ORR	AZALA	<ul style="list-style-type: none"> <li>• ALBISTE NAGUSIA</li> <li>• AURKIBIDEA</li> <li>• EDITORIALA</li> </ul>
2. ORR	GURE ESKOLA	<ul style="list-style-type: none"> <li>• ENKETA</li> <li>• ELKARRIENKETA</li> </ul>
3. ORR	ALBISTEAK	ETNEKIK ENARRITAKOAK
5. ORR	• ASTEARTEKO AGENDA	• ASTEKO URTEBETETZEAK • INTERNETIK EGURALDIA
	• OSTIRALEKO AGENDA	• SOL PARTIDUAK ETA MENDI • JOKERAK
ALE BEREZIAN	ADOSTU ETA PROGRAMATEEN DENA	

ZER DATOR DEPARTAMENTUETATIK		
2. ORR	GURE ESKOLA	• ZIKLO KEBERDINETAKO INFORMAZIOA ( IRTEERAK, IKASTARROAK, UDALERKUAK ..... ) BIZOLIA
4. ORR	LUMAREN KILIMA	• DEPARTAMENTUETAKO LANAK: IFLIN ASMATUAK, DESKRIBAFENAK, ....
6. ORR	ENTRETENIGARRIAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>• DENBORAFASAK</li> <li>• JOLAS MATEMATIKOAK</li> <li>• DISKINUA</li> </ul>
ALE BEREZIAN	ADOSTU ETA PROGRAMATEEN DENA	

Hemen liburu honetan joku aukera handia dago ezberdintasunak aberasgarri direlako eguneroko elkarbizitzan